

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

Behin betiko onartzea "A-3122 errepidean Berantevillako saihebidetza eraikitze proiektua" k eragindako ondasun eta eskubideak eta ondasun eta eskubide horien titularrak deitzea okupazioaren aurreko aktak egiteko ekitaldira

Diputatuen Kontseiluak, ekainaren 9an egindako bilkuran, 298/2015 Erabakia onartu zuen. Hona hemen horren testua:

"Behin betiko onarpena ematea "A-3122 errepidean Berantevillako saihebidetza eraikitze proiektua" k eragindako ondasun eta eskubideen zerrendari, eta Eusko Jaurlaritzari eskatzea horien presako okupazioa adieraztea. Kreditu atxikipena.

Diputatuen Kontseiluak, abuztuaren 3an egindako bilkuran, 430/2012 Erabakia onartu zuen, hain zuzen, "A-3122 errepidean Berantevillako saihebidetza eraikitze proiektua" behin betiko onartzen zuena. Halaber, hasierako onarpena eman zion proiektuak eragindako ondasun eta eskubideen zerrendari eta hura jendaurrean jartzeari.

Izapide hori bete egin zen, iragarkiak jarrita Berantevillako udaletxean, herri horretan baitaude eraginpeko finkek, eta ALHAOn (103. zenbakia, 2012ko irailaren 7koa), baita ere "El Correo Español El Pueblo Vasco" eta "Diario de Noticias de Álava" egunkarietan urte eta hile bereko 6an. Halaber, inguruabar horren berri eman zaie eragindako finken jabeei.

Jendaurreko informazio aldiari hiru alegazio aurkeztu, eta Diputatuen Kontseiluaren maiatzaren 6ko 241/2014 Erabakiaren bidez, ekainaren 10eko 301/2014 Erabakiak hutsa zuzenduta, erantzun ziren.

Herrilan eta Garraio Zuzendaritzak proiektu horrek eragindako ondasunen eta eskubideen zerrenda behin betiko onartzea proposatu du, jasotako eta onartutako alegazioen ondorio diren aldaketak sartutakoan eta jabe aldaketaren bat izan duten finken titulartasuna eguneratu ondoren. Halaber, proposatu du espedienteari jarraitzea lurra okupatzeko.

Desjabetze espedientearen izapideei dagokienez, foru aldundi honek uste du espediente Nahitaezko desjabetzaren Legearen 52. artikuluan ezarritako salbuespeneko prozeduraz izapidetu behar dela eta, ondorioz, Eusko Jaurlaritzari eskatu behar zaiola okupazioa presakotzat jo dezan. Ildo horretan, zuzendaritza hark uste du premiaz ekin behar zaiela obrei, herri horretako egungo zeharbideak dituen bide segurtasun arazoak konpontzeko.

Arabako Foru Aldundiak du eskumena Arabako errepideak planifikatu, proiektatu, eraiki eta aldatzeko, azaroaren 25eko 27/1983 Legeak (autonomia erkidegoko erakundearen eta lurralde historikotako foru organoen arteko harremanei buruzkoa) 7. eta 8. artikuluetan eta ekainaren 25eko 20/1990 Foru Arauak (Arabako Lurralde Historikoko errepideei buruzkoa) 8. artikuluan ezartzen dutenaren arabera. Eskumen horiek baliatzeko, Foru Aldundiak aukeran du desjabetu beharreko ondasun eta eskubideak desjabetzea, halaxe xedatzen baitu Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legeak, 2.1 artikuluan.

Erakunde horren barruan, Diputatuen Kontseiluak du eskumena desjabetzeari begira onura publikoaren adierazpena dakarten proiektuak onartzeko eta desjabetzeak erasaten dituen ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda onartzeko, halaxe xedatzen baitu Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko Foru Arauak (52/1992 Foru Araua, abenduaren 18koa) 8,26 artikuluan.

Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak emandako txostena aztertu da, non behar den aurrekontu kreditua badagoela jaso den.

Horregatik, Herrilan eta Garraio Saileko foru diputatuaren proposamenez eta Diputatuen Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hona hartu den

ERABAKIA

Lehenengoa. Onartzea "A-3122 errepedean Berantevillako saihesbidea eraikitzeako proiektua" k eragindako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda (honekin batera doan eranskinean jasotzen da), eta haiek okupatu eta eskuratu beharra deklaratzeko, desjabetu eta aldi batean okupatzeko, eta zortasunak ezarri, aldatu edo iraungiarazteko.

Bigarrena. Eusko Jaurlaritzari eragindako ondasunak eta eskubideak premiaz okupatu behar direla adierazteko eskatzea, ondoren desjabetze espedientea Nahitaezko desjabetzapenaren Legearen 52. artikuluan xedatutako presako prozeduraren bidez izapidetu ahal izateko.

Hirugarrena. 984.738,49 euro esleitzea, Arabako Foru Aldundiaren 2015erako luzatutako 2014ko ekitaldiko aurrekontuko "Desjabetzeak" izeneko 50106.5300.6000201 partidaren kontura (taldea: 15.6.16; xedapen erreferentzia: 15.6.16.105-17/000), eragindako ondasun eta eskubideen balio justua dela eta ordaindu beharreko kopuruei aurre egiteko.

Laugarrena. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak I. eranskinean jasotzen diren finkei dagokien balio justua ordain dezala aipatutako lerroaren eta xedapen erreferentziaren kontura. Zenbateko hori ordainduko da Desjabetzapen Atalaren buruaren proposamen txostena aurkeztu eta gero, eta betiere legeak ezarritako epeen barruan.

Bosgarrena. Herrilan eta Garraio Saileko foru diputatuari ahalmena ematea, proiektu hau gauzatzeko beharrezkoak diren azalera handitzeak egin ahal izan ditzan, kontuan izanda zein muga ezartzen duen abenduaren 18ko 40/2013 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoaren 2014rako aurrekontua gauzatzekoak, 16. artikuluan."

Horren berri ematen da interesdunak jakinaren gainean jartzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, eta jakinarazten da egintza honek administrazio bideari amaiera ematen diola, eta honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, honako hau argitaratu –edo, hala badagokio, jakinarazi– eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, egoki iritzi gero, horren aurretik, aukerako berraztertze errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio egintza eman zuen organoari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, errekurritu nahi den egintza argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita. Hala eginez gero, ezingo da aurkeztu administrazioarekiko auzi errekurtsorik, harik eta aurkeztutako berraztertze errekurtsioaz ebazpen espresa eman edo ustezko ezespina gertatu arte (Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen Legearen 116. eta 117. artikulua).

Era berean, Eusko Jaurlaritzak uztailaren 27ko 157/2015 Dekretua eman zuen proiektuak eragindako lurren presazko okupazioa beharrezkoa zela adierazteko, nahitaezko desjabetzearen ondorioetarako.

Ondorioz, proiektuak eragiten dituen eskubideen titularrei dei egiten zaie okupazioaren aurreko aktak eta, hala badagokio, okupazio aktak eta balio justua finkatzeko aktak egiteko egintzara.

Egintza hori 2016ko irailaren 13tik 22ra bitartean izango da, 10:00etatik aurrera, Berantevillako Udalaren bulegoetan, honekin batera doan zerrendan jasotzen diren egun eta orduetan. Hala ere, interesatu bakoitzari jakinaraziko zaio banakako zitazio zedularen bidez (Nahitaezko desjabetzeari buruzko Legearen 52.2 artikulua).

Egintza horretara erasaten zaienek joan beharko dute, haiek berek edo haien izenean jarduteko behar bezalako baimena duen pertsonak ordezkaturik, beren titularitatea egiaztatzeko agiriak aurkeztuz (eskritura publikoak, pribatuak, jabetza erregistroaren ziurtagiriak eta abar), eta, gainera, peritua, letradua edo notarioa ere eraman ahal izango dute laguntzeko, bere kontu.

Halaber, eta Nahitaezko desjabetzearen Erregelamenduaren 56.2 artikuluan xedaturikoarekin bat etorriz, interesdunek nahiz argitaratutako zerrendatik kanpo utzi diren eskubide errealeen nahiz interes ekonomikoen titularrek egoki deritzeten alegazioak aurkeztu ahal izango dizkiote idatziz Arabako Foru Aldundiari (Probintzia plaza, 4 - 6. 01001, Gasteiz) okupazioaren aurreko aktak egiteko adierazi den egunera arte, baldin eta ondasun eta eskubide erasanak zerrendatzean okerrik egin bada eta horiek zuzentzeko bada.

Balio beza, orobat, argitalpen honek jakinarazitzat jo daitezen jakinarazpena egin ezin izan zaien pertsona eta erakunde guztiak, zein diren edo nora jakinarazi behar zitzaizen jakiterik izan ez delako edota, jakinarazpena egiten saiatu arren, gauzatu ezin izan delako (30/1992 Legea, azaroaren 26koa, herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearena, 59.4 artikulua).

Lege oharra. Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa betetzeko, Arabako Foru Aldundiak jakinarazten dizu iragarki honetan agertzen diren datu pertsonalak erakunde honek desjabetzapen espedienteak kudeatu eta tramitatzeko daukan Desjabetzapen Espedienteak izeneko fitxategi mistoaren osagai direla. Datu horiek ez zaizkie beste pertsona batzuei jakinaraziko, legeak baimendutako kasuetatik landa. Aipatutako lege organikoak datuetan sartzeko, datuak ezerezteko eta zuzentzeko eta haien aurka egiteko eskubiak aitortzen ditu; haiei buruz kontsulta edo azalpenen bat egin nahi baduzu, Arabako Foru Aldundiaren Erregistroaren Bulegora (Probintzia plaza 5, 01001 Gasteiz, Araba) jo beharko duzu.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko abuztuaren 22a

Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren zuzendaria
MARÍA ÁNGELES GUTIÉRREZ ONDARZA

FINKAREN ZK	TITULARRAREN IZENA	KATASTROKO DATUAK		UDALA	APROBETXAMENDUA	ERAGINDAKO ONDASUNA	ERAGINDAKO AZALERA M2			EGUNA	ORDUA
		POLIGONOA	LURSAILA				BEHIN-BEHINEKOA	BEHIN-BEHINEKOA	ZORTASUNA		
Nº FINCA	NOMBRE DEL PROPIETARIO	DATOS CATASTRALES		AYUNTAMIENTO	APROVECHAMIENTO	BIEN AFECTADO	DEFINITIVA	TEMPORAL	SERVIDUMBRE	DIA	HORA
1	AMADOR TORRES PEÑÑA	1	300	BERANTEVILLA	Lantzeko lurra / Tierra de labor		4.970			13/09/16	10:00
7	MOISES ALONSO DIAZ DE SARRALDE	1	287	BERANTEVILLA	Lantzeko lurra / Tierra de labor		19	79	Lurazpiko lurreztaize 3m/ Subterránea regadio 3m 30	13/09/16	10:45
2	SALVADOR ALONSO DIAZ DE SARRALDE	1	299	BERANTEVILLA	Lantzeko lurra / Tierra de labor		3.218			13/09/16	11:45
27	SALVADOR ALONSO DIAZ DE SARRALDE	1	1333A	BERANTEVILLA	Afer-lurra / Improductivo		28			13/09/16	11:45
1/08	SALVADOR ALONSO DIAZ DE SARRALDE	1	303	BERANTEVILLA	Lantzeko lurra / Tierra de labor		21.967			13/09/16	11:45
8	FERNANDO PERELLO GONZALEZ-MORENO ISABEL MARIA GONZALEZ-MORENO ORTIZ M.ROSARIO GONZALEZ-MORENO ORTIZ	1	269	BERANTEVILLA	Lantzeko lurra / Tierra de labor		28.472	4.297	Lurazpiko lurreztaize 3m/ Subterránea regadio 3m 2.186 Aireko Telefonikoa 1m /Aérea Telefónica 1m 24	14/09/16	10:00
20	ISABEL MARIA GONZALEZ-MORENO ORTIZ	1	241	BERANTEVILLA	Lantzeko lurra / Tierra de labor		4.931			14/09/16	10:45
9	JESUS GONZALEZ-MORENO ORTIZ	1	262	BERANTEVILLA	Lantzeko lurra / Tierra de labor		61	12	Lurazpiko lurreztaize 3m/ Subterránea regadio 3m 1	14/09/16	11:45
28	JESUS GONZALEZ-MORENO ORTIZ	1	222	BERANTEVILLA	Lantzeko lurra / Tierra de labor		2.316	535	Lurazpiko lurreztaize 3m/ Subterránea regadio 3m 263	14/09/16	11:45
29	JESUS GONZALEZ-MORENO ORTIZ	1	213	BERANTEVILLA	Lantzeko lurra / Tierra de labor		20.224	841	Lurazpiko lurreztaize 3m/ Subterránea regadio 3m 412	14/09/16	11:45
33	ANGEL PERAL ANSOTEGUI RAMON PERAL ANSOTEGUI	1	215	BERANTEVILLA	Lantzeko lurra / Tierra de labor		9.530			15/09/16	10:00
18	CARLOS ARMENTIA MARQUINEZ	1	244	BERANTEVILLA	Lantzeko lurra / Tierra de labor		6.821,12			15/09/16	10:45
1/09	CARLOS LOPEZ DE BRIÑAS SAENZ DE SANTAMARIA	1	304	BERANTEVILLA	Lantzeko lurra / Tierra de labor		57			15/09/16	11:30
13	ALVARO DIAZ DE JUNGUITU MONTOYA	1	271	BERANTEVILLA	Lantzeko lurra / Tierra de labor		4.178			15/09/16	12:30
16	ALVARO DIAZ DE JUNGUITU MONTOYA	1	281	BERANTEVILLA	Lantzeko lurra / Tierra de labor		6.160			15/09/16	12:30
19	ENRIQUETA MARIA VIZUETE LOPEZ ELVIRA OCIO VIZUETE ANA OCIO VIZUETE MARTA OCIO VIZUETE GUILLERMO OCIO VIZUETE	1	242	BERANTEVILLA	Lantzeko lurra / Tierra de labor		6.000			16/09/16	10:00
1/07	FAUSTINA BURUAGA LARRAURI	1	302	BERANTEVILLA	Lantzeko lurra / Tierra de labor		3.258,52			16/09/16	10:45
23	GUILLERMO ALONSO PEREA	1	230B	BERANTEVILLA	Lantzeko lurra / Tierra de labor		5.569			16/09/16	11:30
31	ANGEL LOPEZ DE TORRE JIMENEZ	1	208	BERANTEVILLA	Lantzeko lurra / Tierra de labor		564			16/09/16	12:30

Esp./Expte. : 12/121

A-3122 ERREPIDEAN BERANTEVILLAKO SAHESBIDEA ERAIKITZEKO PROIEKTUA
PROYECTO DE CONSTRUCCION DE LA VARIANTE DE BERANTEVILLA EN LA CARRETERA A-3122

FINKAREN ZK	TITULARRAREN IZENA	KATASTROKO DATUAK		UDALA	APROBETXAMENDUA	ERAGINDAKO ONDASUNA	ERAGINDAKO AZALERA M2			EGUNA	ORDUA
		POLIGONOA	LURSAIA				BEHIN-BETIKOA	BEHIN-BEHINEKOA	ZORTASUNA		
Nº FINCA	NOMBRE DEL PROPIETARIO	DATOS CATASTRALES POLIGONO	PARCELA	AYUNTAMIENTO	APROVECHAMIENTO	BIEN AFECTADO	DEFINITIVA	SUPERFICIE AFFECTADA M2 TEMPORAL	SERVIDUMBRE	DÍA	HORA
16/090	ANGEL LOPEZ DE TORRE JIMENEZ	1	246	BERANTEVILLA	Lantzeko lurra / Tierra de labor			68	Lurazpiko lurreztaize 3m/ Subterranea regadio 3m 23	16/09/16	12:30
32	HEREDEROS DE MARGOS PECIÑA ALBIZ: ALFREDO PECIÑA SAEZ DE IBARRA BASILIO PECIÑA SAEZ DE IBARRA MARIATIZIAR PECIÑA SAEZ DE IBARRA MARIANO PECIÑA SAEZ DE IBARRA	1	214	BERANTEVILLA	Lantzeko lurra / Tierra de labor		874			19/09/16	10:00
4	BEATRIZ VITERI MURO	1	297	BERANTEVILLA	Lantzeko lurra / Tierra de labor		4.010	116	Lurazpiko lurreztaize 3m/ Subterranea regadio 3m 52	19/09/16	10:45
10	MARTIN DUQUE VALLEJO	1	274	BERANTEVILLA	Lantzeko lurra / Tierra de labor		1.206	122	Lurazpiko lurreztaize 3m/ Subterranea regadio 3m 23 Aireko Telefonikoa 1m /Aerea Telefonica 1m 23	19/09/16	11:30
6	M. MILAGROS DUQUE VALLEJO DIONISIO DURANA MONTOYA	1	291	BERANTEVILLA	Lantzeko lurra / Tierra de labor		9	28	Lurazpiko lurreztaize 3m/ Subterranea regadio 3m 5	19/09/16	12:30
11	M. MILAGROS DUQUE VALLEJO	1	273	BERANTEVILLA	Lantzeko lurra / Tierra de labor		650			19/09/16	12:30
26	M. PAZ DIAZ DE TUESTA GOMEZ	1	228	BERANTEVILLA	Lantzeko lurra / Tierra de labor		2.288			20/09/16	10:00
15	M. ISABEL PEREA SAEZ DE SANTAMARIA	1	282	BERANTEVILLA	Lantzeko lurra / Tierra de labor		10.099			20/09/16	10:45
21	M. CARMEN GARCIA CAMENO LUIS MARIA VALLEJO PEREA	1	234	BERANTEVILLA	Lantzeko lurra / Tierra de labor		168			20/09/16	11:30
17	JOSE MARTINEZ ALFONSO	1	245	BERANTEVILLA	Lantzeko lurra / Tierra de labor	Putzua / Pozo	9.556	642	Lurazpiko lurreztaize 3m/ Subterranea regadio 3m 316	20/09/16	12:30
1/06	JOSE MARTINEZ ALFONSO	1	301	BERANTEVILLA	Lantzeko lurra / Tierra de labor		6.636			20/09/16	12:30
24	IGNACIA LOPEZ DE TORRE DIAZ DE OTAZU RAMON LOPEZ DE TORRE DIAZ DE OTAZU LAUREANA LOPEZ DE TORRE DIAZ DE OTAZU	1	229	BERANTEVILLA	Lantzeko lurra / Tierra de labor		7.981			21/09/16	10:00
22	CARMEN MONTOYA ARMENTIA	1	233	BERANTEVILLA	Lantzeko lurra / Tierra de labor		8.427	859	Lurazpiko lurreztaize 3m/ Subterranea regadio 3m 412	21/09/16	10:45
12	J. LUIS LOPEZ DE BRINAS MITNEZ. DE ARAMAYONA FELIX LOPEZ DE BRINAS MITNEZ. DE ARAMAYONA	1	272	BERANTEVILLA	Lantzeko lurra / Tierra de labor		173			21/09/16	11:30
14	J. LUIS OCIO LOPEZ	1	270	BERANTEVILLA	Lantzeko lurra / Tierra de labor		4.958			21/09/16	12:30
30	JESUS ABECIA CORCUERA	1	212	BERANTEVILLA	Lantzeko lurra / Tierra de labor		2.429	558	Lurazpiko lurreztaize 3m/ Subterranea regadio 3m 274	21/09/16	13:15
25	HEREDEROS DE EUSTAQUIO OCIO MARTINEZ	1	227	BERANTEVILLA	Lantzeko lurra / Tierra de labor		9.688			22/09/16	10:00
34	JESUS MARIA ALONSO VALLEJO	1	194	BERANTEVILLA	Lantzeko lurra / Tierra de labor		8.475	6	Aireko Elektrikoa 14m /Aerea Electrica 14m 49	22/09/16	10:45
5	JULIAN LOPEZ DE TORRE ELORZA	1	296	BERANTEVILLA	Lantzeko lurra / Tierra de labor		1.818	853	Lurazpiko lurreztaize 3m/ Subterranea regadio 3m 384	22/09/16	11:30

FINKAREN ZK	TITULARRAREN IZENA	KATASTROKO DATUAK		UDALA	APROBETXAMENDUA	ERAGINDAKO ONDASUNA	ERAGINDAKO AZALERA M2			EGUNA	ORDUA
		POLIGONOA	LURSAILA				BEHIN-BETIKOA	BEHIN-BEHINEROKA	ZORTASUNA		
Nº FINCA	NOMBRE DEL PROPIETARIO	DATOS CATASTRALES POLIGONO	PARCELA	AYUNTAMIENTO	APROVECHAMIENTO	BIEN AFECTADO	DEFINITIVA	TEMPORAL	SERVIDUMBRE	DIA	HORA
3	LUCIA DIAZ DE OTALORA DIAZ DE ARCAVA J. IGNACIO GUINEA DIAZ DE OTALORA JESUS MARIA GUINEA DIAZ DE OTALORA M. ARANTZAZU GUINEA DIAZ DE OTALORA LOURDES GUINEA DIAZ DE OTALORA LAURA GUINEA DIAZ DE OTALORA	1	298	BERANTEVILLA	Lantzeko lurra / Tierra de labor		6.691			22/09/16	12:30
35	HEREDEROS DE REMEDIOS LOPEZ DE TORRE LOPEZ DE TORRE	1	216	BERANTEVILLA	Lantzeko lurra / Tierra de labor		182	288	Aireko Elektrikoa 14m /Aérea Eléctrica 14m 1.390	22/09/16	13:15